

ERTZILLA'KO ALONSO

Erderaz idazten ospetsua izan dan idazle au Madrid'en jaio zan 1533n.urtean,baiña Madrid'en jazotako jaiotza au une aretako gauzea zan, bera eta bere sendia Bermeo'tarrak ziran.

Bere aita Fortun Ertzillako Gartzia zan eta ama Zuñiga'ko Leonor.

1548n.urtean, txiro eta umezurtz, II Felipe erregegaia- ren etxeko langille biurtu zan eta onek irakasle bat ezarri eutson, Kristobal Kalbete eriotxona, eta onek irakatsi eutsozan idazle klasikuak,filosofia, Biblia eta Garzilaso. Bere idaz-lanean igarten da onein ikutua.

1554n.urtean Felipe erregegaia-gaz Ingalaterra'ra joan zan eta an jakin eban Baldibia il zala Txile'ko Arauko'n eta erregegaia-gandik baimena lortu eban Ameriketara joa- teko. Kadiz'tik urten zan 1555n. urtean.

Txile'ko agintari nagusiagaz alkartu zan Arauko'tarren aurka apentza-guda egiteko 1557n.urtean Kallao'tik urtenda.

Zazpi gudalditan ekin eban eta berak eskuratu eban Txiloe eta Korkobado lurraldera sartu zan.Ementxe asten da bere bizitzea edesten dauan La Araukana epopeia.1558n.urtean Peru'ra erbesteratu eban.

Lima'n txiro aurkitu zan eta II Felipe erregeari lagun- tza eskatu bear izan eutson eta errege-ordeak bere zain- tzailleen artera sartu eban

156ln.urtean guda-ekintza bat Lope de Agirre'ren aurka (au Oiñatiko semea zan, ankerra guztiz) eta Lope de

Agirre il zanean gure Ertzilla España'ra biurtu zan Ame- riketan zazpi urte egin ondoren.

Kortean ondo artu eban eta aldi onetan izan eban Juan bere semea, ezkontzatik kanpoko.

1569n. irarri eban La Araucana'ren iru zatietatik lenen- goa eta arrezkero ezaguna da España osoan eta Amerike- tan. Ezkondu egin zan 1570n. urtean eta Santiago'ren Sai- lleko Zaldun izendatu eban.

1578n.urtean La Araukana'ren bigarren zatia argitara- tu eban eta onek bere ospea ugaritu eban

1582n.urtean Azores ugarteetako gudara joan zan Bazan'go Albar'egaz eta emen ezagutu eban Cervantes idazlea. Onek bere idaz-lana asko goratu eban.

Laster biurtu zan Madrid'era eta liburuen aztertzaile izendatu eban,bide batez ibilladi luzeak egiten ebazala.

Bere bizitzako azkenengo bost urteak etxean igaro ebazan, erregearen laguntza barik eta idazten,Portugal eskuratzeari buruz dan bere liburua idazten.

1594n. urtean il zan eta bere gorpua Okaña'ko lekaima karmeldarren etxean dago.

Zer esan La Araukana liburuari buruz?

Ba,epopeia guztien artean onenatarikoa dala eta jazoerakaz batera irudimena ondo nastaten dauala. Bana- ko burrukak eta Arauko'ko gudari mitikuen ekintzak ondo goratzen dauazala liburirk geienean. España'tarrak eta inditarrak ondo ta adoretzu burrukatzen dabe klasiku- aldiko gazaundien antzera.

2.- EUSKAL JAKINTZA

Euskal jakintza,guztioak dakigunez,bereizia da eta asmamen aundia dauka agertzen dan lekuan ekintza bereiziak era arrigarrian sortzeko.Ori da idaz-lan onek agertuko dauskuna. Izaera orren iturria billatu nai ba'dogu, gure izkun- tza, gure eresa,gure oiturak eta abar aztertu bearko geunkez eta ez gitxiago antxiña gure baserrietan izan zan bizie- rea.

Ori agertzen dau Bernart del Castillo'ren "Los vizcainos" idazkiak.

Gure jakintzak Ameriketan ikutu ikaragarria izan eban.Ori be idatzita agertzen da ango misiolariak euskaldunen- tzat idatzi ebezan itzaldietan

Frontoiak,esaterako, Amerika guztietan agertzen dira, asi Kanada'n eta Suzko Lurrera arte,XVII gizaldian asita,lenengo eskuz eta au erarik txiroena ba' litz lez itzi zanean otzaraz eta paletaz be bai.

Abertzaletasuna be zabaldu zan ango euskaldunen artera eta 60 argitalpen, gitxienez,agertzen dira giro onetan Ameriketan.

Eta euskerea be zaindu eta zabaldu dabe ango euskaldunak,etxean lenengo eta gero gizartean. Angoak ulertzea gura ez ebenean erabilten eban batez be. Poztasun aundiz alkar agurtzeko be bai.

Sarritan idatzi be idazten eban euskeraz.Gogoratu Fr. Juan de Zumarraga' k bere amari egindako eskutitza. Ba- dago XIX gizaldian ango literatura edo elertia eta 1936n.urteko gudaren ostean ara ainbeste igeslari joan ziranen indar aundia artu eban arlo onek eta liburu asko argitaratu ziran an,batez be Arjentina'ko Ekin irarkolan. Iru aldiz- kari ospetsu be bai: Caracas'en Argia, Guatemala'n Eusko Gogo, eta Mexiko'n Ekin. eta geroago Arjentina'n asko.